

### III. GIPIZKOAKO PINTXO, BANDERILLA ETA MINIATURAZKO SUKALDARITZA TXAPELKETA

#### 1. Artikulua. Antolaketa eta babesleak

Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak (aurrerantzean, “**Antolakuntza**”), Pintxoaren Institutuaren laguntzarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketarako departamenduaren babesarekin, III. Gipuzkoako Pintxo, Banderilla eta Miniaturazko Sukaldaritza Txapelketa antolatu du.

#### 2. Artikulua. Parte-hartzaileak

Txapelketan parte hartzea librea da eta ez du inskripzio-gasturik sortzen parte hartzen duten establezimenduentzat (aurrerantzean, “**Parte-hartzailea(k)**”). Txapelketan parte hartu ahal izango dute Gipuzkoan kokatuta dauden ostalaritzako establezimenduek, baldin eta taberna badute eta urtean zehar pintxoaren edo miniaturazko sukaldaritzaren eskaintza jarraitua badute. Baldintza hori betetzen ez duten establezimenduak txapelketatik kanpo utzi ditzake Antolakuntzak.

Txapelketa honetan edo beste edozeinetan irabazle suertatu diren pintxoak, banderillak edo miniaturazko sukaldaritzako proposamenak ezin izango dira Txapelketara aurkeztu.

#### 3. Artikulua. Kategoriak

Bi kategoria ezarri dira txapelketan parte hartzeko:

- **Pintxoa edo *banderilla*:** “pintxoa” edo “banderilla” gisa ulertuko da, janari-zati batzuen zaporea eta estetika modu orekatuan konbinatzea (ogi-xerra baten gainean, zotz batean sartuta, edo beste formatu batzuetan). Produktua, normalean, hatzekin hartzen da, eta bi edo hiru mokadutan jan daiteke. Parte hartzaileak libreki aukeratuko ditu pintxoaren edo banderillaren osagaiak. PSParen gehienezko muga (publikoarentzako salmenta-prezioa) HIRU EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (3,50 €) izango da.
- **Miniaturazko sukaldaritza:** miniaturazko sukaldaritzatzat hartuko da, sukaldean landutako errezeta bat duen platertxo (saltsa, aurkezpena, etab.); normalean, mahai-tresnekin kontsumitzen da.



Parte-hartzaileak berak libreki aukeratuko ditu osagaiak. Gehienezko PSPa SEI EUROKOA (6 €) izango da.

Aurrerantzean, dokumentu honetan “**Pintxo hautagaiari**” egiten diren aipamen orokorrak bi kategorietan aplikatuko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak kategorija batean edo bietan parte har dezake. Parte-hartzaile bakoitzak pintxo-hautagai bakarria aurkezten ahalko du bi kategorietan.

Halaber, Pintxo eta Banderilaren kategoriako parte-hartzaile denak, Pintxo edo Banderilla Berriztatzaileari saria eskuratzeko aukera izango dute.

#### **4. Artikulua. Inskripzio fasea**

Txapelketan parte hartu nahi duten establezimenduek izena eman beharko dute [www.campeonatopintxosgipuzkoa.eus](http://www.campeonatopintxosgipuzkoa.eus) web gunearen bidez, irailaren 1etik 30era, biak barne, bertan aurkituko duten inprimakia bete eta, argazki bat eta Pintxo Hautagaiaren errezeta aurkeztuz. Edozein agiri edo informazio epean aurkezten ez bada, establezimenduak ez du txapelketan parte hartuko.

#### **5. Artikulua. Finalerdirako hautagaien hautaketa fasea**

Izena ematen duten Parte-hartzaileek Txapelketan parte hartzen duten Pintxo Hautagaia eskaini beharko dute, gutxienez, Finalera arte, hau da, azaroaren 28ra arte.

Epe horretan, mystery shopper formatuan, epaimahaiak parte hartzen duten establezimenduak bisitatuko ditu eta bi kategorietako bakoitzean finalerdikora igaroko diren 22 establezimenduak aukeratuko du.

Finalerdikoan, kategorija bakoitzean, eskualde guztietako hautagaitzak izango dira ondorengo proportzioan (eskualde bakoitzeko pintxo-tabernen kopuruaren arabera kalkulatu):

- 7 Donostiakoak.
- 3 Donostialdea (Andoain, Astigarraga, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta y Usurbil)
- 3 Tolosaldea-Goierri (Abaltzisketa, Aduna, Albistur, Alegia, Alkiza, Altxaga, Altzo, Amezketa Anoeta, Arama, Asteasu, Ataun, Baliarrain, Beasain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduaian, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Orendain, Oresa, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Villabona, Zaldibia, Zegama, Zerain y Zizurkil).

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babesleak:



- 3 Bidasoa (Hondarribia eta Irun barne)
- 3 Dabegoiena/Debabarrena Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Mendaro, Mutriku, Oñati y Soraluze).
- 3 Urola Kosta/Urola Erdia Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidania-Goiatz, Errezil, Ezkio, Getaria, Legazpi, Orío, Urretxu, Zarautz, Zestoa, Zumaia, y Zumarraga).

Epaimahaiak aukeratu ahal izango du eskualde bateko ordezkari izango diren pintxoek kopuru txikiagoa finalerdietara pasatzeko, baldin eta uste badu ez dituztela betetzen eskatutako kalitate-estandarrak, eta beste eskualde batzuetako pintxo hautagaiek ordezkatu gabe.

## 6. Artikulua. Finalerdikoa

Finalerdikoak azaroaren 21an egingo dira.

Aurrez aipatutako proportzioak jarraituz, bi kategorietako bakoitzean 22 establezimenduk parte hartuko dute finalerdikoan, eta hauek Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko egoitzan egingo dira. Finalerdikoa showcooking formatuan egingo da eta epaimahaikideak bertan izango dira. Parte hartzeko hurrenkera zozketa publiko baten bidez erabakiko da. Antolakuntzak garaiz jakinaraziko die finalerdikorako hautatuak izan diren guztiei. Finalerdikorako hautagaiek, laguntzaile bakar batekin parte hartu ahalko dute.

Finalerdikorako hautatuak izan direnek, ez dute inolaz ere lehiatuko Txapelketaren babesleekin gatazkan dauden publizitate edo logorik gainean eramango.

Finalerdikoan, epaimahaiak 10 establezimendu finalistak hautatuko ditu kategoría bakoitzeko. Epaimahaiak finalista gutxiago aukeratu ahalko ditu edozein kategoriatan, eskatutako kalitate estandarrak betetzen ez dituztela uste badu.

## 7. Artikulua. Finala

Finala azaroaren 28an izango da. Bertan, finalistek showcooking formatuan prestatuko dituzte Pintxo-hautagaiak, eta epaimahaikideak aretoan eta jendaurrean egongo dira. Parte hartzeko hurrenkera zozketa publiko baten bidez erabakiko da. Antolakuntzak

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babesleak:



garaiz jakinaraziko die erabakia finalista guztiei. Finalistek laguntzaile bakar batekin parte hartu ahalko dute.

Finalistek ezin izango dute inolaz ere lehiaketaren antolatzaile edo babesleekin gatazkan dauden publizitate edo logorik erakutsi.

Finalean, epaimahaia 3 saridun hautatuko ditu:

- Pintxoaren edo banderillaren proposamenik onena.
- Miniaturazko sukaldaritzaren proposamenik onena.
- Pintxo edo banderilla Berriztazaileari saria.

Epaimahaia edozein sari eman gabe utz dezake, baldin eta uste badu pintxo finalistek ez dituztela betetzen eskatutako kalitate estandarrak.

## 8. Artikulua. Epaimahaia

Epaimahaikideak Pintxoaren Institutuak izendatuko ditu fase bakoitzerako.

Eskualde bakoitzerako finalerdiko hautagaiak hautatzeko fasean, bi epaimahai bikote izendatuko dira, Pintxoaren Institutuko kideez osatutako bikote bat eta eskualde horretako profesionalek osatutako beste bikote bat.

Finalerdikoan eta finalean, sei kidek osatuko dute epaimahaia.

## 9. Artikulua. Dekalogo eta puntuazio irizpideak

Gipuzkoako eskualde guztietan miniaturazko sukaldaritzaren eskaintza eta lehiakortasuna hobetzeko, Txapelketak Pintxoaren kultura sustatu nahi du, dekalogo honetan oinarrituta:

1. **TAMAINA ZEHATZA ZAPORE HANDIENERAKO:** Pintxo goi mailako sukaldaritza da miniaturan. Zaporeak, ñabardurak eta testurak biltzen dituzten bi edo hiru mokadu.
2. **ETXEAN EGINA:** Pintxo bat artisau moduan egin behar da establezimenduko sukaldean eta langile kualifikatuekin, ohiko jakintzari jarraituz.
3. **ABANGOARDIA:** Pintxo bere sormen eta abangoardiagatik nabarmendu behar da.
4. **NORTASUNA:** Pintxoak establezimenduaren nortasuna eta identitatea baloratu behar ditu.

5. **FRESKOTASUNA:** Pintxoak, bai beroak zein hotzak, momentuan prestatu behar dira.
6. **PRODUKTUAREKIKO KONPROMISOA:** Pintxoak produktu freskoaren aldeko apustua egin behar du, gertuko eta denboraldiko produktua.
7. **PROFESIONALITASUNA ZERBITZUAN:** Ostatuak, garbiketa, ordena, elikagaien segurtasuna, arreta adeitsua eta errespetuzkoa, eta zerbitzu arin eta aditua bermatu behar ditu.
8. **INFORMAZIO ARGIA ETA BEGI-BISTAKOA:** Pintxoak kalitate-prezio erlazio egoki eta koherentea eskaini behar du. Era berean, prezioa eta osagaiak argi azaldu behar dira.
9. **GURE ERARA:** Establezimenduak pintxoaren ibilbidea eta barrako kontsumoa bultzatu behar ditu. Zerbitzua hobe da amaitzean kobratzea.
10. **BIZIKIDETZA ETA TOKIKO KULTURA:** Pintxoa gure nortasunaren parte da eta hainbat hamarkadataro tradizioa gordetzen duen altxor txiki bat da. Harekin paisaia dastatzen da, inguruan topagune eta bizikidetzarako gune bat sortuz, euskarak bere adierazpen onena aurki dezan.

Zehazki, eta aipatutako dekalogoak kontuan hartuz, epaimahaiak Pintxo hautagaiak baloratuko ditu fase bakoitzean, irizpide hauei jarraikiz:

1. **Zaporea:** gustua, ahogozoa, kontrastea eta ñabardurak (40 puntu).
2. **Berrikuntza edo abangoardia:** proposamenaren berritasuna, asmamena eta originaltasuna (30 puntu).
3. **Aurkezpena:** pintxo hautagaiaren muntaia, kolorea, ikusgarritasuna eta kokapena (20 puntu).
4. Pintxo hautagaiaren **aplikazio komertziala** (10 puntu).
5. **Bertako produktua erabiltzea** pintxo hautagaia egiteko (20 puntu).

Fase bakoitzeko sailkapena puntuazioaren arabera ezarriko da, handienetik txikienera.

Puntuetan berdinketarik izanez gero, lehenbizi "Zaporea" epigrafean puntu gehien lortu dituenak sailkatuko da. Eta berdinketak bere horretan jarraitzen badu, sailkapen hobe lortuko du "Berrikuntza edo abangoardia" epigrafean puntu gehien lortu dituenak, eta oraindik ere berdinketak jarraitzen badu, "Aurkezpena" epigrafean puntu gehien lortu dituenak irabaziko du.

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babesleak:



Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da fase bakoitzean.

### **11. Artikulua. Sariak**

Pintxorik edo banderilarik onenaren, miniatutzako sukaldaritzaren proposamenik onenaren eta Pintxo edo banderila Berriztatzailearen irabazleek MILA EURO-ko (1.000 €) ordainsaria jasoko dute.

### **12. Artikulua. Komunikazioa**

Parte-hartzaileak eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu txapelketan parte hartuko duela iragartzeko, hala nola sare sozialen bidez edo komunikabide tradizionaletan parte hartuz, bereziki Antolakuntzak hala eskatzen diotenean.

Era berean, Antolakuntzak parte hartzaile bakoitzari sustapen-materiala bidaliko dio, eta nahitaez establezimenduko leku ikusgarrietan jarri beharko du.

### **13. Artikulua. Lagapena**

Finalerdietan eta finalean parte hartzen duten pintxo hautagai guztien irudiak hartuko ditu Antolakuntzak baita sukaldari sortzaileen irudiak ere.

Parte-hartzaileek berariaz eta doan baimentzen diote Antolakuntzari beren izena, irudia, irudiak (bai Antolakuntzak egindakoak, bai parte-hartzaileek Antolakuntzari emandakoak izena ematean) eta pintxo hautagaien izenak publikoki jakinarazteko, bai modu bateratuan, bai banaka, bai azalpenaren ondorioetarako, baina ez murriztaile gisa, edozein motatako publizitate-helburuetarako (idatzizko edo Interneteko edozein komunikabidetan), edozein eratako promozio- edo -helburutarako (edozein eratako publizitatea barne).

### **14. Artikulua. Datu pertsonalen babesa**

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorriz, txapelketan parte hartzen dutenei jakinarazten zaie inskribatzeko eskaeraren bidez ematen dituzten datu pertsonalak eta aurkeztutako edozein dokumentazio GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEAren datu basean sartuko direla, tratamendua emateko helburuarekin. Datuak Txapelketan parte hartzeko bakarrik erabiliko dira eta legeak eskatzen duen epean gordeko dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, non ez den legezko betebeharren bat edo tratamenduaren helburua betetzeko beharrezkoa.

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babesleak:



EUSKADI  
BASQUE COUNTRY



Txapelketan parte hartzen dutenek eskubide hauek erabiltzen ahalko dituzte beti beren datu pertsonalei dagokienez:

- Zure datu pertsonaletarako sarbidea eskatzea, bai eta datu horiei ematen zaien tratamenduari buruzko informazio guztia ere.
- Datu pertsonalak zuzentzeko eskatzea.
- Tratamendua mugatzeko eskatzea.
- Tratamenduari aurka egitea eta kentzeko eskatzea.
- Zure datu pertsonalen eramangarritasuna eskatzea.

Eskubide horietakoren bat erabiltzeko, interesdunak honako helbide honetara jo dezake, idatziz:

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA  
Almortza, 2 (20018) Donostia - Gipuzkoa.  
Telefona: 943 31 60 40  
Faxa: 943 31 21 73  
Posta elektronikoa: [promociones@hosteleriagipuzkoa.com](mailto:promociones@hosteleriagipuzkoa.com)

## 15. Artikulua. Beste xedapen batzuk

Txapelketan parte hartzeak berekin dakartza oinarri hauek eta Txapelketako baldintzak erabat onartzea.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein gorabehera edo haien interpretazioari buruzko zalantzak, Antolakuntzak argituko ditu.

## 16. Artikulua. Lege eta jurisdikzio aplikagarria

Oinarri hauek Espainiako legeak arautzen ditu. Oinarri hauekin edo Txapelketarekin zerikusia duen edozein eztabaida ebazteko, Antolakuntza eta Parte-hartzaileak Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dira, eta uko egiten diote legokiekeen beste edozein forori.

Donostian, 2023ko irailaren 1a.